

Abstentzioa

GIZARTE zientzietan ari den edo-nork daki, munduko konplexitatea dela-eta, ekintzek ustegabe-ko efektuak ('efectos perversos') dituztela. Hori gertatu da oraingoan Euskalerrian. Espainiako sistema totalitarioaren aurka urteetan zehar Euskal oposizioak egindako kritika zorrotzaren ondorioz, inork espero ez zuena, abstentzioa sortu da espantoneki borroka modu gisa, lehen intsumisioa lez.

Ekaineko emaitzen irakurketa ez da berdina espainiar totalitarismo bikoitzetik ala euskal oposiziotik eginda. Espainolek emaitzak abertzaleen porrotatzat hartu dituzte; bainan euskal oposizio demokratikotik behatuz gero, arrakastatzat jo ditzakegu. Guk ezin ditugu gauzak espainol inperialista totalitarioek bezala irakurri. Guk berriinterpretatu egin behar ditugu. Gizarte zientzietan, denok dakigu berrinterpretazioak duen garrantzia. Abstentzioa espantonea eta demokratena izan da: abertzale eta ez-abertzale diren demokratena. Estatu eta alderdi totalitarismo bikoitzaz nazkatutik gauden guztiona. Nazkatutik gaude-lako, ez dugu erregimenaren jokora erori nahi izan bozkatzera joanez.

Espainiak ezarritako hauteskunde totalitarioan garaipenik eza ez da gure errua, totalitarismoarena baizik. Totalitarismoak engainatu egin gaitu, hori da gure okerra. Saldu digutena da, sistema demokratikoan geundela, hauteskunde sistema garbia eta inpartziala zela, edozeinek irabazteko modukoa, iruzurgabea... eta zenbaitek sinistu! A zer abertzale ideologi ahultasun! Ideo-

logia estrategiaurrea da; hori okerra bada, estrategia ere okerra izango da. Sistema guztiaren boteregunea Madrilen baitzegoen («le pouvoir comme 'régulateur' fondamental de l'action collective des hommes et donc de tout système», Crozier, L'acteur et le système, 246), ezinezkoa zen alderdi abertzaleen garaipena. PNVk ez du galdu espainolista delako.

Totalitarismoak ezina egiten du abertzaleen garaipena bozketetan. Ezker abertzalearen garaipena posible izateko aurrena soberania lortu behar da eta gero ezkertasuna; biak batera ezin dira. Boteregunea Madriletik Euskalerrira ekarritakoan, posible izango da ezker ala eskubitiar abertzaleen garaipena; bitartean ez. Hitleren naziak Prantziaren jabe ziren bitartean, nola izango zen posible prantses ezkertiar ala eskubitiar abertzaleen garaipena? Ezina. Hori ondo ulertu zuten kolore guztietako prantsesek eta horregatik borrokatu ziren, denak bat eginik, aurren-aurrena aberria askatzeko eta gero hasi ziren ezkertiar eta eskubitiar politika abertzalea egiten. Maotsetunek eta Txankaitzek ere bat egin zuen japonesak Txinatik botatzeko; gero hasi ziren elkarren aurkako borrokan. Aurrena, Herriko soberania inperialisten aurka; gero ezkertiar edo eskubitiar politikagintza. Hori ulertu dute beste Herriek ere. Horregatik (so Alain Tourainen artikulua nazionalismoari buruz, 'Larrun' eta 'El Pais') mende honen hasieran Erdieuropako Herrien langileek ere, aurrena Herri askatasuna ipintzen zuten eta gero

langilerigoa. PP, PSOE eta IU, militarrek eta funtzionarioak lez, estatuzaingak dira eta aurrena Estatu Espainolaren soberani inperial totalitarioa defendatzen dute; hortarako, euren artean aliatu abertzaleon aurka. Gero Herriak, langilerigoa etb.

Modernitatea amaitu den une honetan, ez dugu oraindik ezkertiar ideologiarik zehaztu, sortzen ari den gizarte berria nolako den ez baitakigu. Urteak pasako dira ezkertiar ideologia berri bat asmatzeko. Zentro eta eskubiko abertzaleakitsuak izan dira, inperialismo totalitarioa demokraziaizat hartzeko; De Gaullek ez bezala, Pax Romana inperialaren izenean, inperialistak aliatutzat hartu eta ezker abertzaleak etsaitzat jo dituzte. Bihotza abertzalea; buru jokabideak espainolak.

Abstentzioa euskal oposizioaren garaipena da eta sistema osoa deslegitimatzen du; bideratzen bada, totalitarismo bikoitzaren aurka eta soberaniaren aldeko urrats estrategikoa. Hamabost urteotan aritu dira zenbait abertzale esaten abstentzioa zela askatasunerako lehen urratsa; totalitario egoeran geundela; alderdi estrategia txarra zela; helburu bakarra behar zela: soberania. Baina alperrik; zokoratuak izan ziren. Politikariek ukatu dutena, espantoneki jendeak egin du. Aurrerantz, hori kontutan hartuz, abiatu behar.

MIKEL URKOLA
EHU-KO IRAKASLEA

Mixel Rocard eta alderdi sozialista

NAHASKETA haundiak Sozialist Alderdian: Mixel Rocard lehen ordezkariak demisionatu du Europako hauteskunde ondotik, hain trixtea izan delakotz bildu duen boz-zama, egundaino hoin apal ez delakotz izan Sozialist Alderdiaren influentzia. Demisione horrek debate bat nahi zuen sortarazi Kontseilu nazionalan, baina ainitzek zaukaten gogoan heldu zaizkigun hauteskundeak, Presidentaren hauteskundeak, helduden primaderan. Mixel Rocard-ek ez du eskuratu galdegiten zuen konfiantza, bi arrazoin nagusiren gaitik:

— Fabius eta hunen lagunak, joanden urteko auzi-galtzearen errebantxaren okasionearen gibeletik zaudelakotz, eta Delors presentatu nahi dutelakotz Presidentgai gisa.

— Jospin eta hunen lagunak zatikatu direlakotz, eta partikulazki Emmanuellik erreprotxu haundiak argitaratu dituelakoz Mixel Rocard-en politika-sailaren kontra, sobera ahula zela liberalismoaren kontra eta abar.

Rocard-ek berak jasan behar ote luke, hauteskunde ondotxo txarraren erresponsabilitatea? Ainitz militanteri ez zaiote gustatzen holako ikus-molde manikearra, bat dena beltz eta bertzeak dena xuri? Egia,

betidanik, Sozialist Alderdiak ez dakiela Europar hauteskunde kanpanaren kudeatzen eta kanpana hortarako, militanteen mobilizatzen. Lista nazionalak direlakotz eta ez herrialdeetan zatikatuak. Parisetik asmatuak direlakotz kanpanako manifestaldi guziak, eta partikulazki telebixtatik egin kanpana delakotz. Ideia hoberenak, orai telebixtan ez badira ongi zainduak eta gustagarri moldean emanak, xantza ttipia dute norbaiten interesatzeko. Eta izan diren debate publikoetan, Rocard ez da bere egun hoberenetan agertu, liberalismoa ez du aski atakatu, Europa aski elgarrizketatu, eta ainitzeri iduritu zaiote ez zela haunditzen Sarajevo listako intelektualen gibeletik lasterka ibili delarik.

Eta orai?

Sozialist Alderdiak, zuzendaritza berria izendatu du, haatik ainitzak aspaldian hor daudenekin. Kongreso nazionala helduden larrazkeneko konbokatua da eta jadanik Emmanuellik zabaldu du bere nahi nagusia, izan dadin Alderdian majoritate baten kudea lezaken politika-sail argia, oso ezkertiarra, liberalismoarekin konpromiso gutti pasa lezakeena, langabeziaren kontrako politika sail fermua. Baina, lehen ordezkartzat altxatu duten Fabius-en lagunak segituko ote dute bide hortan? Ez dira

Alderdi barnean ezkertiarrenetariokak. Oronen buru, Delors presenta laikeia helduden urtarrean? Rocard-en kontra sozialist alderdiaren aintzinean presentatuz lehenik? Ezin asmatua da. Xantza onak dituela agertzen dituzte erregularki ateratu sondeok. Biziki gustagarriko itxura du Frantsesen gogoan, estado-gizonaren itxura. Egia, Chirac baten kontra, zentrotik etorriko zaizkola bozak nonbre haundian. Baina, ez sozialistek, politika-sail sobera birtza badute. Eta zer egin Tapie-rekin? Ezin hurbil laiken gizona bilakatu ote da, MRG alderdia hoin gora altxatu duen gizona?

Eskuineko alderdiak biziki zatikatuak dira hamar hilabeteren buruan izanen den hauteskunde nagusienari buruz. Segur, ez dira gora, eta horien politikak ez du ondorio onik.

Baina Sozialist Alderdia ere dudaz itorrik: berriz gobernatu ala nortasun galduren bilakuntzarat oposizioan? Maleruki, Rocard-en kanporatzeak ez du deus sendatu. Proiektu argirik gabe dago Sozialist Alderdia.

FRANTXUA MAITIA
IPAR EUSKAL HERRIKO ALDERDI
SOZIALISTAREN ORDEZKARIA

BERRIAKZIRI



MARIO CONDE
Banestoko
lehendakari ohia
EL MUNDO

«Sistemak ez zuen


onartzen Banestoren gisako botere gune bat bere kontrolatik at egon zedin»



JAIME IGNACIO DEL BURGO
UPNko diputatua
Kongresuan
DIARIO DE NOTICIAS

«Burdina gorria har-

tuko nuke eskuetan Fragarengatik»



ANDU LERTXUNDI
Idazlea
EL CORREO

«Gure literatura Es-

painian egiten ari dena baino europarragoa da»



MANOLO DELGADO
Espainiako futbol
selektzio
prestatzaile fisikoa
DEIA

«Selektzio-ko jokalariak gero eta hobeto ariko dira txapelketak aurrera egin ahala»

ZAKILIXUT

© Olariagak

